

2022ko urtarrilaren 12an oposizio faseko ariketa (elkarrizketa) egin ondoren, hauek dira epaimahaiak hartu dituen erabakiak:

1.- Joan den 2022ko urtarrilaren 3an Ane Eizagirre Albizu hautagaiak aurkeztutako idatzari erantzun hau ematea:

- Masterrak baloratzean oinarriek zehazten zuen interpretaziotik at jardun zuen epaimahaiak, eta oinarrien arabera formazioa baloratzeko soilik orduen irizpidea har zezakeen kontuan. Borondate onez master batek zuen garrantzia baloratu nahi izan zen, baina oinarriek ez dute hori baimentzen, horiek onartuta dauden bezala. Horrek master agiria aurkeztu zuten guztiei eragin die, inork ere ez baitzuten masterraren orduak egiaztatu. Beraz, berdintasun printzipiorik ez da urratu.

- Bestalde, erreklamazio epearen barruan erreklamatu zuen hautagaiari soilik baloratu zaizkio instantziak aurkezteko epearen barruan egiaztatu zituen dokumentuak. Hain zuzen, akats batengatik, behin-behineko balorazioan baloratuak izan ez zirenak.

- Horregatik guztiatik, ez da ikusten arrazoirik behin betiko emaitzak aldatzeko eta aurkeztutako eskaera ez onartzea ebatzi da.

2.- Bestalde, hauek dira epaimahaiak ebatzi dituen oposizio fasearen (elkarrizketaren) behin-behineko emaitzak:

IZANGAIA	ELKARRIZKETA (30 puntu arte, gutxienez 15 puntu gainditzeko)
AZPIRI ARANBARRI, LORE	15,2
BAROJA AGUIRREGABIRIA, IRATI	6 (Ez gainditua)
EIZAGIRRE ALBIZU, ANE	23
ETXEBERRIA AMILIBIA, IBON	5 (Ez gainditua)
OIARTZABAL LABAKA, AINHOA	10,90 (Ez gainditua)

Espedientea berrikusi eta oposizioko ariketen emaitzen inguruko erreklamazioak egiteko **hiru (3) laneguneko epea** egongo da, udal web orrian iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Erreklamazioak idatziz eta Pasaia Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eta Epaimahaiko lehendakariari zuzendu behar zaizkio.

Lehiaketa eta oposizioaren behin-behineko emaitza hauek **behin betiko bihurtuko balira**, hau litzateke emaitza, orotara:

IZANGAIA	MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (ez dago gutxienezkorik ez gehienezkorik)	ELKARRIZKETA (30 puntu arte, gutxienez 15 puntu gainditzeko)	GUZTIRA
AZPIRI ARANBARRI, LORE	2	15,2	17,2
EIZAGIRRE ALBIZU, ANE	95,5	23	118,5

Honenbestez, puntuazio gehien duen izangaiaren aldeko izendapen proposamena egiten zaio

Alkate Lehendakariari, kautelaz, behin-behineko emaitzak behin betiko bihurtzen diren kasurako. Izangaiak lan-eskaintza onartuko ez balu, puntuazio gehien dutenei egingo zaie eskaintza, hurrenez hurren. Aldiz, behin-behineko emaitzaren aurka erreklamazioak aurkeztuko balira, berariaz ebatziko lituzke epaimahaiak, dagokion izendapen proposamenaren bidez.

Pasaian, 2022ko urtarrilaren 14an.

Lehendakaria,